

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 11/2022 Foru Dekretua, martxoaren 8koa. Onespena ematea abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua aldatzeari, zeinaren bidez arautzen baita kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen eta atzerrian dauden ondasun eta eskubideen berri emateko beharra

Foru dekretu honen bidez, abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua aldatzen da, zeinaren bidez arautzen baita kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen berri emateko betebeharra.

Agindu horrek, zerga iruzurra prebenitzeko, informazio betebeharra ezartzen du pertsona edo entitateentzat, eta bereziki turismo erabilerarako etxebizitzaren lagapenean bitartekaritza egiten duten "elkarlaneko plataforma" deiturikoentzat. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen dira etxebizitzaren errentamendua edo azpierreantamendua, Hiri Errentamenduen Legean definitzen diren moduan, eta ondasun higiezinak txandaka aprobetxatzeko eskubidea.

Aldaketa horren arrazoi nagusia dira Auzitegi Gorenaren 2020ko uztailaren 23ko 1106/2020 Epaiaren eta EAeko Auzitegi Nagusiaren 2020ko abenduaren 4ko 381/2020 Epaiaren erabakiak. Epai horiek baliogabetu eta ondorioz gabe utzi dute betebeharrak hau arautzen duen araudi baliokidea, lurralde erkidean eta Bizkaiko Lurralde Historikoan, eta haren edukia Arabako Lurralde Historikoan indarrean dagoenaren berdina da.

Baliogabetzearen arrazoiak izan da ez zaizkiola jakinarazi Europako Batzordeari, "erregelamendu tekniko" gisa, erregelamendu proiektu horiek izapidetu bitartean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko irailaren 9ko 2015/1535 (EB) Zuzentaraua betez, zeinaren bidez erregelamendu teknikoaren eta informazio gizartearen zerbitzuei buruzko arauen arloko informazio prozedura ezartzen baita.

Gure ustez, jurisprudentziaren erabaki horiek ikusita, nahiz eta informazio betebeharrak hori arautzen duen Arabako erregelamendua ez den aurkaratu alderdi horretan, aldatu egin behar da, izapide formal egoki horiek betetzeko.

Araudi honek proportzionaltasun printzipioa betetzen du, eta xedapen horrekin bete nahi den beharri erantzuteko ezinbestekoak diren arauak biltzen ditu. Ez dago xede horretarako beste neurririk, hartzaileen eskubideak gutxiago murrizten dituenik edo hartzaileei betebeharrak gutxiago jartzen dizkienik.

Ekimen honen bidez segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, eta koherentea da estatuko eta Europar Batasuneko gainerako ordenamendu juridikoarekin.

Foru dekretu hau izapidetzean gardentasun irizpideari jarraitu zaio, zeina Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikulua arautzen baitu.

Era berean, bete egin dira hauexetan jasoriko izapideak: Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedura onesten duen maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretua, arau inpaktuari eta genero inpaktuari buruzko txostenak eta araugintza jarraibideak egiteko gidak, eta erregelamendu teknikoaren eta informazio gizartearen zerbitzuei buruzko arauen arloko informazio prozedura ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko irailaren 9ko 2015/1535 (EB) Zuzentarauaren 5.1 artikulua.

Ikusirik gaiari buruz Zerga Araudiaren Zerbitzuak emandako txostena eta Aholku Batzordeak emandakoa, zein lege antolamenduari egokituz jotzen baita foru dekretua.

Horregatik, lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Aldatzea 111/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, zeinaren bidez arautzen baita kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen berri eta atzerrian dauden ondasun eta eskubideen berri emateko betebeharra

25. artikulua aldatu da, eta honela idatzita geratu da:

“25. artikulua. Turismo erabilerarako etxebizitzaren lagapenaren berri emateko beharra.

1. Turismo erabilerarako etxebizitzaren lagatzaileen eta lagapen hartzaileen artean bitartekaritza egiten duten pertsonen eta erakundeek bitartekaritza xede diren lagapenei buruzko informazio aitortpena aurkeztu behar dute aldi-aldi.

2. Artikulu honetan jasotzen den informazio aitortpenaren ondorioetarako bakarrik, turismo erabilerarako etxebizitzat jotzen dira Eusko Legebiltzarraren Turismoari buruzko uztailaren 28ko 13/2016 Legearen 53. artikuluko 1. apartatuan ezartzen direnak, eta 13/2016 Lege beraren 54. artikuluko 1. apartatuan ezarritako turismo erabilerarako etxebizitza partikularren gelakako ostatuak.

Kontzeptu horretatik kanpo geratzen dira etxebizitzaren errentamenduak, Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 29ko 29/1994 Legean edo hura ordeztzen duen araudian definitzen diren moduan, bai eta etxebizitzaren partezko azpierrementandua (lege arau horren 8. artikuluan aipatua) eta ondasun higiezinak txandaka aprobetxatzeko eskubidea ere.

3. Bitartekaritza joko dira aurreko apartatuan adierazten den erabileraren lagatzaileen eta lagapen hartzaileen artean bitartekaritza zerbitzua ematen duten pertsona edo entitate guztiak, dohainik nahiz kostu bidez egiten dutela.

Bereziki, halakotzat joko dira elkarlaneko plataforma bezala eraturik, aurreko apartatuan adierazten den erabileraren lagapenean bitartekaritza egiten duten pertsona edo entitate guztiak, baldin eta informazio gizarteko zerbitzu emailtzat jotzen badira Gizarte Informazioko Zerbitzuen eta Merkataritza Elektronikoen uztailaren 11ko 34/2002 Legean adierazten denaren arabera, bitartekaritzaren gaia den azpiko zerbitzua eman nahiz ez eman, eta lagatzaileei eta lagapen hartzaileei baldintzak ezartzen zaizkiela ere (hala nola prezioa, aseguruak, epeak edo bestelako kontratu baldintzak).

4. Informazio aitortpenean honako datu hauek agertu behar dira:

a) Turismo erabilerarako lagatako etxebizitzaren titularraren identifikazioa, baita etxebizitza turismo erabilerarako lagatzen duen eskubidearen titularrarena ere, pertsona bera ez izatekotan.

Identifikazioa izen-abizenen, sozietatearen izenaren edo izen osoaren eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren bidez egingo da, edo kasuan kasuko aitortpen eredu onesten duen foru aginduak ezartzen dituen baldintzetan.

Horretarako, lagatzen den eskubidearen titulartzat joko dira turismo erabilerarako lagatako etxebizitzaren jabetza eskubidearen, multijabetza kontratuen, denbora partzialeko jabetzaren edo antzeko formulen, errentamenduaren, berrerrentamenduaren edo beste edozein erabilera edo gozamen eskubideren titularrak, azken batean etxebizitza horren erabileraren lagatzaile direnak.

b) Higiezinaren identifikazioa, katastro erreferentzia edo zenbaki finkoa adierazita, dagokion aitortpen eredu onesten duen foru aginduan ezarritakoaren arabera.

c) Pertsona edo entitate lagatzaileen identifikazioa, baita ere zenbat egunez gozatuko den etxebizitza turismo erabilerarako.

Identifikazioa izen-abizenen, sozietatearen izenaren edo izen osoaren eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren bidez egingo da, edo kasuan kasuko aitorten eredia onesten duen foru aginduak ezartzen dituen baldintzetan.

Horretarako, aurretik adierazi den zerbitzua erabiltzen duten pertsonen identifikazio agiriaren kopia gorde beharko dute etxebizitza turismo erabilerarako lagatzen dutenek.

d) Eskubidea lagatzen duen titularrak etxebizitza turismo erabilerarako lagatzeko zerbitzuaren truke jasotako zenbatekoa edo, hala badagokio, haren doakotasunaren adierazpena.

5. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren agindu baten bidez onetsiko dira kasuan kasuko aitorten eredia, aurkezteko modua, epea eta lekua, bai eta xedapen hau betetzeko garrantzitsua den beste edozein datu ere”

AZKEN XEDAPEN BAKARRA. Indarrean jartzea

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 8a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiordea eta Ogasun,

Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA